


LAPURTUTAKO BIZITZAK

Ospitaletan lapurtutako haur jaioberrien hamaika kasu ari dira azaleratzen. Zumaiako bi kasu ezagutu ditugu.



Zumaia Udala



herri-aurrekontuak 2012

Lehenengo lan-saioa: azaroaren 16an

Udaleko jardunean bi gaik garrantzia handia dute: Zumaia Lantzen sozietatea eta frontoiaren proiektua. Hori dela-eta, bilera honetan horiei buruzko informazioa emango dute udal-ordezkariek eta, ondoren, herritarren iritziak bilduko dira.

Bigarren lan-saioa: azaroaren 23an

Bi atal izango ditu: batetik, hainbat datu emango dituzte udal-ordezkariek, herritarrek ahalik eta informazio gehien izan dezaten; bestetik, herritarren iritziak, kezkak eta proposamenak jasoko ditugu.

Hirugarren lan-saioa: azaroaren 30ean

Herritarrei aurreko bileran zehaztutako irizpideei jarraituta, proposamenak egin ahal izango dizkigute. Landutako proposamenen artean, herritarrentzat ezinbestekoak direnak adostuko dira, bukatzeko.

- Bilera ordua: 18:30ean
- Lekua: Udaletxeko pleno aretoa



Galdona

burdindegia

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

BALEIKE 204

8

baleike +

LAPURTUTAKO HAUR JAIOBERRIAK

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzardea: Agustin Zubimendi,

Xabier Azkue, Gurenda Serrano.

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietala eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

4

hitz-tantak

LEIRE ZEARRETA

7

bertso xorta

MANEX ELOLA

TXAPARTEGI

16

izpiak eta hizkiak

MESKITA

19

erretratua

MARIXI SESMA

25

erreportajea

ZUMAIAKO MUGARRIEN

IBILBIDEA

30

ipuina

PAZIENTZIA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



Leire **ZEARRETA** | Argazkilaria

“Edonora noala, beti eramaten dut argazki-kamera”

Ezagutzen dutenek badakite zenbat gustatzen zaion argazkiak ateratzea. Orain, sariketetan parte hartzen hasi da, eta sari batzuk eskuratu ditu.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

Argazki sariketetan ari zara parte hartzen. Noiz hasi zinen?

Zumaian bertan ekin nion lehengo urtean, eta Legazpira ere joan nintzen. Aurten, han berriz ibili naiz, eta Leitzarangoan ere parte hartu dut.

Zer moduzko emaitzak?

Gustura nago. Legazpin, aurten irabazi egin dut, eta Leitzaranean hirugarren izan naiz. Zumaiaikoan, aurreneko hartan, herriko lehenengoaren saria lortu nuen.

Mota askotakoa izaten dira sariketak. Bat edo beste gustukoago al duzu?

Gaia jartzen digutenean, erosoago ibiltzen naiz, badakidalako zeri atera behar diodan argazkia. Gai libre-tan nondik bideratu ezinda ibiltzen naiz.

Ari zara argazki egokiarren bila, eta zerk esaten dizu “hau da argazkirako egokia”?

Gaiak egun berean ematen dizkigute, eta ezin izaten da



aurretik pentsatu zeri atera. Herrian errazagoa da, lekuak ezagutzen ditudalako, eta kanpoan, berriz, zerbait egokia ikustean etortzen zait argazkia ateratzeko idea.

Sen berezia ez al da behar edozer gauza, pertsona edota egoera argazkirako egokia izan daitekeela antzemateko?

[barrezka] Gogoia behar da, argazkiak gustura ateratzea,

eta bakoitzari ateratzen zaiona ateratzea.

Argazkia atera aurretik asko pentsatzen al duzu nola atera?

Batzuetan bai. Gaiaren arabarekoa izaten da, zenbaitetan ia prestatu gabe ateratzen ditudalako. Baina gai zehatz-zehatza baldin bada, gehiago prestatu behar da. Argazki-rallyetan mota askotakoak daude; ia gehienetan, borratu ditza-kezu argazkiak, eta halakoe-tan, ez dut asko pentsatzen. Baina zenbait kasutan, ezin daitezke ezabatu, eta pentsatu beharra dago zeri eta nola atera.

Erraza al da argazkiak ezabatzea, aukeraketa egitea?

Argazki batzuekin, denbora asko pasatzen dut erabakitzen, baina beste batzuekin, segituan ezabatzeko erabakia har dut.

Argazkia atera aurretik argazkia bera ikusi egin behar al du argazkilariak,

“Gaiak egun berean ematen dizkigute, eta ezin izaten da aurretik pentsatu zeri atera”

gero ondo ateratzeko?

Gaiaren araberekoa izaten da hori ere. Gaia zehatza bada, buelta gehiago ematen dizkiot buruari; esate baterako, koloreari edo konposizioari eman garrantzia, eta halako zalantzak. Legazpikoan, gaiak bereziak ziren. Bat zen enfokea eta desenfokeari buruzkoa, eta segituan pentsatu nuen objektiboan erabili beharko nuela.

Zergatik hartzen duzu parte sariketetan?

Leire Zearreta

Jaioteguna:

1977ko martxoaren 13a

Jaioterria: Zumaia

Ikasketak: Arkiketura



Asko ikasten dut. Bestela, bakarrik eta neure kasa aterako ez nituzkeen argazkiak ateratzen ditut. Legazpikoan, esaterako, beste gai bat zen kurbei buruzkoa. Neure kasa nabileanean, ez zitzaidan bururatu ere egingo kurbei buruzko argazkiak ateratzea. Sariketari esker, argazki horiek nola atera ikasi ahal izan dut. Aitzakia da etxetik ateratzeko, goiz pasa eta halakoak egiteko.

Noiztik daukazu zaletasuna?

Betidanik. Edonora noala, beti eramaten dut argazki-kamera. Gure aitari asko gustatzen zaio, eta berari segika hasi nintzen.

Argazkilariak autodidakta izan behar du?

Bai eta ez. Reflex motako kamera eduki eta Distira Argazki Taldeak ikastaroa antolatzea bat izan zen, eta han ikasi nituen funtzio guztiak. Zeure kasa ikas dezakezu, baina norbaitek

erakusten badizu, laguntza handia ematen dizu.

Umetan hasi zinela esan duzu, eta gaurdaino argazki-kamera dezente izango zenituen. Nolako bidea egin duzu gaur egun arte, zer kamera motarekin?

Aurreneko kamera gurasoek oparitu zidaten, txiki bat, eta ez zen digitala. Baina zuri-beltzean ez dut argazkirik atera, gutxi batzuk izan ezik; gure aita ikusi izan nuen errebelatzen zuri-beltzekoak, baina gure kamerek koloretakoak ateratzen zituzten. Gero, aurreneko digitala ikasketengatik hartu nuen, behar nuelako maketetako argazkiak egiteko. Ondoren, konpakta normal bat eduki nuen, edozein lekutara eramateko. Gero, hibridoa izan nuen, handiagoa, eta eskuz gauza gehiago ezin nizkiola egin ikusi nuenean, oraingo reflexa eskuratu nuen. Azken batean, kamera automatikoak onak dira bidaietako eta lagunen argazkiak ate-

“Edonora noala, beti eramaten dut argazki-kamera”

ratzeko, baina gehiago sartzeko, reflexak hobeak dira, aukera gehiago ematen dute. Gustatu egiten zait argazki bat nola atera behar dudan pentsatzea.

Ikasteko gehiago ba al duzu?

Dena! [barrezka]

Atera duzun argazki politena?

Ez dakit. Txarra naiz auke-ratzen, eta gainera, argazkiak atera ondoren, ia inoiz ez naiz gustura geratzen.

Atera ez duzun argazkia eta ateratzea gustatuko litzazukeena?

Erretratuak ateratzea asko

kostatzen zait. Gustatzen zait jendeak nola ateratzen dituen, baina niri kosta egiten zait. Lotsa ematen dit norbaitengana joan eta argazkia aterako diodala eskatzea.

Gero eta jende gehiago al dabil argazkigintzan?

Mundu guztiak dauka kamera digitala, eta reflex motakoak ere asko ikusten dira, digitalak atera zirenean gutxitu egin baziren ere. Zumaian bertan, Distira sortu eta ikastaroak antolatzen joan den heinean, jende gehiago dabil; hori zen asmoa, azken batean.

Zer ematen dizue Distirak herriko argazkilariei?

Egoitzarik ez daukagu, eta ezin dugu elkartu, geure artean hitz egiteko. Niri gustatzen zait elkarrekin hitz egin, eta batak besteari kontatzea halako argazkia nola atera duen. Ikasteko modu bat da.

Hurrengo sariketa noiz?

Ez dakit. Begiratuko dut. ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumaia@terra.es



L I B R R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



Astelehenetik igandera 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan
Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan, kintoen ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com




ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxekozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6, behea tel. 943 117 406



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozeta
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa


Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



Nagusia, 2 - tel. 943 861 521
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/g
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485

finés, francés, euskara, ingeles, irlandés, español, catalán, sueco, basko, catalán, finlandés, francés, inglés, catalán, francés, castellano, inglés, basko, catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basodi
albaitaritza

Albaitaria
Iñaki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943 143 310
veterinaria@basadcliniclinivet.com
www.basadcliniclinivet.com

Golpez: 11-13 / Arratsaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean Ixtita
Larrialdietarako: 605 728 707 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

BATELA



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4 Tel. 943 860 750

Big Alex

Doinua: "Iparragirre abila dela"



1.
Bere bizitza kortxo mundura
urtebete zuzendu
Uda zein negu, mila olatu
ta mila entrenamendu
Hawai, Mexiko, Sintra
Ez zeukan ona pinta
baina Ferrolen gailendu
Top hogeita laura igotzeko
itxaropena mantendu

2.
Reunion irlara bidaia hartu
anaiarekin batera
baina Itzurunen olatu baten
sorbalda zuen atera
Reunionen aurpegia
bertan utzi zuen ia
ta trialsetan aurrera
Mina garaituz hurrengo urtean
onenekin lehiatzera.

3.
Ordur txikitan zumaiar asko
ordenadoreci begira
Uretan Alex dena ematen
historia egiten ari da
Novy eta Tamega
ta Winchester kalera
ta finalean distira
Amestutako amets guztiak
egia bihurtu dira

4.
Miarritzera lagun koadrila
pankarta handi batekin
ta gaztetxean bideoa jarri
bere irudi onenekin
Big Alex kamiseta
kalea zen beteta
herria dago zurekin
Urte askoan maila horretan
jarraitu ezazu berdin

5.
Garestia da munduan zehar
honela bidaiatzea
Orain bakarrik falta zaiona
sponsorra bilatzea
Kirolgi eta Basque team
Udala ere berdin
tokatzen da laguntzea
Pena litzake diru faltatik
lehorrean geratzea



BALEIKE + LAPURTUTAKO HAUR JAIOBERRIAK

“JAKIN DEZATELA EGIA, EZ ZIRELA ABANDONATUAK IZAN, LAPURTUAK BAIZIK”

Ospitaletan lapurtutako dozenaka haur jaioberriren kasuak ari dira azaleratzen, eta ia mende erdiz inpunitate osoz funtzionatu zuen sarea agerian geratu da. Zumaian ere badira kaltetuak. Ahizpen bila dabiltzan bi emakumerekin hitz egin du Baleikek.

TESTUA: GORKA ZABALETA

Ana Carlota Dominguezen etxean beti jakin dute amak 1963-ko martxoaren 2an erditu zuen lehen haur hura lapurtu egin zirela. Kontu ezaguna zen *familia oneko* emakume antzuekin *mirariak* egiten zituztela zenbait ospitaletan: arroparen azpian ezkutaturiko kuxin batekin haurdun itxurak eginez sartu ate batetik, eta handik ordu gutxira haur bat besoetan irteten ziren bestetik. Ama erditu berriari, berriz, medikuek esaten zieten haur jaioberria hil egin zela eta ospitala arduratu zela ehorzteaz. Eta kitto. Ana Carlota Dominguezen aitak ez zien hitzik sinetsi, baina amorrua irentsi eta etxerako bidea hartu behar izan zuten. Frankismoaren garai ilun haietan, norik egin aurre medikuei, apaizei, funtzionarioei?

Haurrak lapurtzen Gerra Zibilaren ondoren hasi ziren. 1950eko hamarkadakoak dira jasota dauden lehen kasuak. Mertxe Aizpuruaren gurasoei hamarkada haren amaieran lapurtu zieten alaba. “Helburua zen Gerrako galtzaileen artean garbiketa moduko bat egitea. Errepublikazaleei, gorriei edo abertzaleei haurrak kentzen zitzaizkien frankozaleak ziren familien esku lagatzeko. Umiliatzeko beste modu bat zen. Horrelako istorioak erraz lotzen ditugu Argentina edo Txileko diktadorekin, zaila egiten zaigu hemen ere gertatu zirela onartzea, baina hor daude, esate baterako, Saturrarango kartzelako istorioak”.

Garbiketa ideologikoaren izenean antolatutako sareak, baina, segida izan zuen Franco hil ondoren ere. Negozio biribilegia zen muzin egiteko. Medikuek, erizainak, emaginak, mojak, apaizak, ehorztetxeak eta funtzionarioak zeuden haurren kontrabando sarean inplikaturik. Eta boterearen babesa izan zuten, bestela ezin uler baitaiteke “negozioak” 45 urtez irautea inork ezer susmatu gabe. “1980ko hamar-

kadan asko jaitsi ziren salerosketak, agian garai berriak zirelako eta dokumentuak informatizatzen hasi zirelako. Baina ez zen erabat eten. Oraingoan, ezagutu den azken kasua 1995ekoa da. Beldurgarria da”, diote Ana Carlotak eta Mertxek.

Mertxek oraingoan ezin izan du bere ahizpa lapurtuari buruzko dokumentaziorik lortu, baina Ana Carlotak nahikoa informazio eskuratu du han eta hemen bilatuta, eta salaketa jarri du epaitegian. “Gure ahizparen kasua nahikoa garbi dago. Dagoeneko bi mediku, erizain bat eta moja bat salatu ditut. Izen horiek, gainera, beste hainbat kasutan agertzen dira. Esan genezake susmagarrien izenak erreplikatu egiten direla”. Oraingoan ez ditu izenak publiko egin nahi, “errugabetasun presuntzioagatik”. “Iritsiko da izenak emateko eguna, baina gauzak ondo egin nahi ditugu”.

PPko izen ezagunak tartean

Hala ere, dagoeneko hainbat izen agertu dira komunikabideetan, haietako batzuk nahikoa ezagunak. “PPko izen handiak azaldu dira trama honetan zipriztinduta”, dio Ana Carlotak. “Adibidez, kasu askotan agertzen da Jose Maria Mayor Lizarbe, Jaime Mayor Orejaren aita. Ginekologoa zen eta Zarautzen zuen bulego pribatua. Dirudienez, hainbat ospitalerekin egiten zuen lan, salatutako kasu askotan agertzen baita izena”. Espainiako presidente ohi Jose Maria Aznarren emazte Ana Botellaren osaba bat ere sareko ustezko kide da. Salaketa asko dituen klinika batean egiten du lan.

Gaztela-Mantxako presidente Maria Dolores de Cospedalen izena ere azaldu da tartean: “SOS Bebes Robados elkartearen erabaki zen senideak aurkitzeko bide eraginkorra



▲ EGIAREN BILA

Senideek urteak daramatzate lapurtu zieten haur jaioberriaren berri jakin nahian.

izan zitekeela DNA probak egitea, datuak gurutzatu ahal izateko. Madrilgo Genomica laborategian egin genituen probak, baina ez zen kasu bat bera ere argitu. Arraroa iruditu zitzaizgun. Ikertzen hasi eta jakin genuen Genomicako zuzendariaren ahizpa Maria Dolores de Cospedal dela, PPko buruzagia eta Gaztela Mantxako presidentea. Gainera, sarean ustez inplikaturiko mediku baten semea kargu garrantzitsu bat eman dio Gaztela-Mantxako administrazioan. Erabaki genuen beste enpresa bat kontratatzea, Neodiagnostica. Genomicatik datuak berreskuratzea kostatzen ari zaio, badirudi bahituta ditzutela”.

Sarearen ‘modus operandi’-a

SOS Bebes Robados Euskadi elkartearen dagoeneko 600 kasu inguru ezagutzen dituzue, 300dik gora Gipuzkoan. Zein ziren biktima arruntenak?

Guraso osasuntsuak izaten ziren. Normalean, lehen seme-alaba lapurtzen zieten –gero gehiago izateko aukera izango zutelakoan–. Edo bestela, seme-alaba asko zituzte-

nak. Bikien artean ere asko gertatu zen: lehena, ustez osasuntsuena, lapurtu eta bigarrena amari uzten zioten, batekin konformatuko zutelakoan edo... Ospitalera iritsi bezain pronto, gela batean isolatzen zituzten eta lasaigarriak ematen zizkieten uneoro, erdi lokartuta egon zitezten. Erditu ondoren, lo seko gelditzen ziren, ziurrenik lasaigarri gehiago ematen zizkietelako. Ama esnatzerako amarrua egina zegoen. Gurasoei esaten zieten haurra hilda jaio zela eta ezin zutela ikusi, ordurako hilobiratuta zegoelako.

Txanponaren beste aldean zegoen haurra erosten zuen bikotea. Nolako da haien profila?

Guraso antzuak ziren, ezin zuten haurrik egin, baina dirudunak ziren eta *harreman onak* zituzten. Sareko medikuekin adostutako egunean ospitalean agertzen ziren, haurdun itxurak eginez –sabela handitzeko kuxin bat sartuz arropen azpian–. Erditze gelan lapurtutako haur jaioberria guraso eroslearen eskuetara zihoan zuzenean. Dokumentazioan haien haur biologikotzat jotzen zituzten. Umea besoetan hartu eta etxera bueltatzen ziren, lasai asko. Normalean ez ziren pro-



ARANANTZ RUBIO APREA

bintzia berekoak izaten, urrutikoak baizik. Uste dugu Gipuzkoaren kasuan haur asko Andaluzia aldea eraman zituztela, edo baita Frantziara ere.

Beraz, bikote haiek gutxienez jakingo zuten zerbait okerra egiten ari zirela?

Bai, bazekiten, nola ez.

Zenbat ordaintzen zuten haurren truke?

Garaiaren arabera kopuruak aldatu egiten dira, baina bitxia da hitz egin duten apurretatik gehienek erreferentzia berbera erabiltzen dutela: “etxebizitza baten prezioa”. Dena den, aldea zegoen ama biologikoaren ezaugarrien arabera. Esate baterako, prostituta bazen, orduan normalean erditzearen gastuak baino ez ziren ordaintzen.

Eta orain, amarrua agerian gelditu denean, nola ari dira jokatzeko guraso horiek?

Gutxi batzuk ari zaizkie seme-alabei laguntzen, azken finean, maite dituztelako eta zorretan daudela sentitzen dutelako. Baina gehienek ez dute batere lagundu. Dena estaltzea nahiago dute. Burutik jota gaudela esaten duenik ere bada, haurrak hil egiten zirela, eta kitto. Hala bada, hilda badaude, non daude?

Lapurtutako haur haietako batzuek egia jakiteko aukera izan dute. Nola erreakzionatzen dute normalean?

Zaila da beraientzat. Kontuan izan gezur handi baten

biktimak direla. Batzuek egia jakin nahi izan dute eta ikeretzen hasi dira, gurasoek aitortu dietelako adoptatuak direla, ez direla seme-alaba biologikoak. Beste batzuek, berriz, ez dute ezer jakin nahi izan. Askotan esan zaie ama prostituta zela, edo abandonatu egin zutela. Eta kontuan hartu familia dirudunetan hazi direla eta gehienak bizitza maila altukoak direla. Zertarako hasi bazterrak nahasten?

Sarean nahastuta egon ziren erakundeen partetik zer nolako erantzuna jaso duzue? Adibidez, Elizaren edo medikuen partetik?

Erantzun okerrera, medikuen partetik jaso dugu. Inork ez du lagundu nahi, ezkutuan ari diren gutxi batzuk salbu. Itxienak, dudarik gabe, medikuak dira. Batzuek gertatutakoa estali nahi dutelako eta besteek beldurragatik.

Elizak hartu gaitu eta bilerak izan ditugu. Azaldu zigutenez, gauzak normal egiten direnean, engainatzeko asmorik gabe, hilik jaio edo hiltzorian egon, haurrari beti larrialdiko bataioa egiten zaio. Erietzeko apaizak egin dezake, edo hura falta bada bertan dagoen beste edonork. Eta larrialdiko bataio horien berri idatziz jasotzen da. Eta Elizak paper guztiak gordeta dauzka. Informazio hori parrokitan dago. Esan ziguten paper horiek eskura genitzaizkeela pribatutasun eskakizunak betez gero. Baina badirudi gauzak aldatu egin direla eta hori ere geldituta dagoela. Nonbait, inplikaturik daudenek indar handia dute.

Mertxe **AIZPURUA**

Lapurtutako haur baten ahizpa

“Franco hil zenean dokumentazio guztia desagertu zen”

Duela urte batzuk telebistan ikusi nuen albistea. Andaluzia aldean salaketa batzuk egon ziren haur jaioberriak lapurtzeagatik. Ospitalean erditu eta berehala, medikuek esan omen zieten gurasoei haurra osatu gabe jaio zela, hil egin zela, ezin zutela ikusi eta beraiek arduratuko zirela guztiaz.

Hura entzun nuenean, bat-batean, oroitu nintzen gure etxean ere antzeko zerbaite gertatu zela, ni haurra nintzela -11 edo 12 urte izango nituen-. 1958az edo 1959az ari gara. Ama erditzera joan bai, baina haurrik gabe bueltatu zen etxera. Haurra non zegoen galdetu nion: “Esan didate bizirik jaio dela baina barrutik osatu gabe, eta hil egin dela”, erantzun zidan. Haurra non zegoen galdetuta: “esan didate beraiek arduratuko direla guztiaz”. Horrela ohartu nintzen guri ere senide bat lapurtu zigutela.

Gaiaz kezkatzen hasi eta elkartarekin jarri nintzen harremanetan. Handik denbora batera, auzokide batek deitu zidan telefonoz, esanez nola telebistan ikusi ninduen eta nirekin hitz egin nahi zuela. Hark kontatu zidan gure ama erditzera joan zenean bere amak lagundu ziola, eta gure aitak kotxea eskatu ziola auzokide bati. Hirurak joan omen ziren ospitalera, Gros aldera. Lehen amaetxe gehienak inguru hartan zeuden. Gaur inguru hartako denak itxita daude. Behin erditu ondoren, auzokidearen ama etxera itzuli zen, “Mercedesek neskatxa eder bat” izan zuela esanez. Beraz, haurra ikusi, ikusi zuten. Eta bizirik. Hurrengo egunean ja-



ARANAITZ RUBIO APREA

“Amari esan zioten haurra bizirik jaio zela baina barrutik osatu gabe, eta hil egin zela”

kin omen zuten haurra hil egin zela, eta auzokidearen amak, harriritu, esan omen zuen: “Ba, ez zirudien haur hark ezer zuenik!”.

Zoritarrez, hori da nik daukadan informazio apurra. Ez dut inolako dokumenturik lortu, dena galduta omen dago eta. Guk ez dakigu zehazki non erditu zen ama, baina garai haietako amaetxeak jadanik ez dira existitzen. Paperak bilatu ditut bazter guztietan, baina esaten digute ez dagoela ezer. Kontua da Franco hil zenean dokumentazio guztia desagertu egin zela. Lekualdatze batean galdu zirela, uholderen batean... Beti dago aitzakiaren bat. Klinikaren batean sute misterioitsu bat ere gertatu zen. Inork ez zuen minik hartu baina paper guztiak erre ziren... Orain esan didate Gasteizen zerbaite egongo ote den...



ARANAITZ RUBIO APREA

◀ ELKARRETARATZEAK

Hileroko lehen larunbatean elkarretaratzeak egingo dituzte Donostiako Artzain Onaren katedralaren aurrean. 17:00etan. “Gizartearen laguntza behar dugu egia jakin dadin”. Sinadurak ere ari dira biltzen.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's

Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizak
- Taldeentzako menu bereziak

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

BERRITUA

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTIXO AUZOIA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe.
DOAN

Behoko plaza

tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda

Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lasaitzaleak, Estresaren, Antsietaetaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan, kontrakoak), Akupuntura: horratzekin eta horratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Era gutrietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabiloia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181

Ana **CARLOTA DOMINGUEZ**

Lapuritutako haur baten ahizpa

“Ospitaleko hilerrian lurperatu zutela esan zioten aitari, baina ospitaleak ez zuen inoiz hilerririk izan”



BALEIKE +

Gurasoak Zumarragan bizi ziren. Erditzeko ordua iritsi zenean, Donostiako Arantzazuko Ama ospitalera joan ziren, eta han hasi zen dena. Iritsi bezain pronto, aitari esan zioten “ama edo alaba” aukeratzeko, bietako bat hil egingo zela erditzean. Lapurretarako bidea prestatzen ari ziren, nonbait. Nik ospitalean bertan lortu ditudan txostenetan, ordea, ez da halako larritasunik ikusten. Amaren datuak (taupadak, tenperatura...) eta sabelean zeraman haurarenak erabat normalak ziren.

Horrez gain, 1963ko otsailaren 27an iritsi zen ospitalera, eta martxoaren 2ra arte ez zen inolako neurrikerik hartu, egoera han larria bazen, haurra salbatzeko. Egunak egin zituen gela batean, ilunpean; lasaigarriak ematen zizkieten uneoro, erdi lokartuta egon zedin. Amak ez du ia ezer gogoratzen egun haietaz. Aitari, berriz, egunean hamar minutu bakarrik uzten zizkieten amarekin egoteko. Medikuek zioten oso larri zegoela, baina ama gela arrunt batean zeukaten, zaintza berezirik gabe, eta soilik lasaigarriekin.

Hirugarren egunaren ondoren, erditzea probokatzea erabaki zuten medikuek. Guk orain pentsatzen dugu haurra jaso behar zuen familia iritsi zain egon zirela medikuak, askotan urrutikoak izaten baitziren. Amak erdi lo jarraitzen zuen arren, ahal izan zuen guztia lagundu zuen erditzean, eta ondoren lo seko gelditu zen. Ez dakigu esfortzuagatik edo lasaigarri gehiago eman ziotelako, baina badakigu nahikoa ohikoa zela erditu bezain pronto ama lasaigarriekin lokartzea, nonbait, esnatu ondoren gertatutakoaz ezer gogora ez zezan.

Hortik aurrera, beste kasu gehienetan gertatutakoa errepikatzen da. Aitari esan zioten ama salbatzea aukeratu zuenez haurra hil egin zela. Umea ikusi nahi zuela eskatu zien aitak, baina ez zioten utzi. Esan zioten haurrak ordu batzuk egin zituela bizirik, baina ez zioten ikusten utzi, ez bizirik, ez hilik. Gure izekok ere ez zuten ikusi. Inork ez.

Aitak Zumarragara eraman nahi zuen hilotza, han hilobiratzeko, baina erantzun zioten ezinezkoa zela, ospitalak zeukan hilerri pribatuan lurperatu zutela, aitak inolako baimenik sinatu ez zuen arren. Gero demostratu ahal izan dugu ospitalak inoiz ez duela hilerririk izan, eta gainera debekaturik zegoela.

Baina bitxia zera da: gero jakin dugunez, Polloen ere lurperatuta omen dago. Han galdetu dugunean erantzun di-

gute baietz, baina hilobi komun batean egongo dela. Hori bai, Polloeko datuen arabera, hil eta zazpi egunetara hilobiratu zuten. Nork dio egia? Dena gezurra. Gure ahizparen heriotza ez du inork sinatu, ofizialki ez dago hilda. Beraz, desagertutzat eman dezakegu.

Lapurreta kasuak agertzen hasi zirenean, aitarekin hitz egin eta erabaki genuen bion artean hasiko ginela gure kasua ikertzen. Horrela, denborarekin zenbait dokumentu lortu ahal izan ditut, nahikoa garbi erakusten dutenak haurra lapurtu zigitela. Amaren erditze txostena lortu dut, eta bertan dio jaioberria “emea” dela, “hiru kilo eta 300 gramokoa”. Horrez gain, oharretan dio tanta batzuk jarri zizkitela begietan, infekzioak saihesteko. Gurasoei sinestarazi nahi izan zieten bezain larri bazegoen haurra, begietan tanta batzuk botatzeaz kezkatuko al ziren, bada?

Baina ez da hori lortu dudak dokumentu bakarra. Haurrari dagozkion beste bi eskuratu ditut ospitalean bertan. Lotsagarriak dira biak, ez baitute inolako datu zehatzik ematen: ez haurraren edo gurasoen izen-abizenik, ez ospitaleko ohe edo sehaskaren zenbakirik, ez medikurik, ez erizainik... Ezer ere ez. Sinadurarik ere ez. Txostena edozeinena izan daiteke. Bada, txosten horietako batek dio nire ahizpa jaiotako baino hiru urte lehenago hil zela. Ahizpa 1963ko martxoaren 2an jaiotako zen eta txostenak dio 1960ko martxoaren 3an hil zela. Gainera, txosten horren arabera, erditzean hil zen, lehen aipatu dudak amaren erditze txostenak bizirik jaiotako zela aitortzen duen arren. Nahikoa kontraesan ez eta bada oraindik beste datu harrigarri bat: ospitaleko dokumentuak dio ahizpa 1960ko martxoaren 3an hil zela, baina ospitalea urte bereko abuztuan inauguratu zen. Sei hilabete geroago. Kontraesanak begi bistakoak dira.

Dokumentazio hau guztia lortu nuenean aitarekin hitz egin nuen. Berak beti izan du salatze gogo, baina lehen ezinezkoa zen. Elkarrean lanean hasi zenean —lehen Anadir, orain SOS Bebes Robados Euskadi— gauzak aldatu egin dira.

Informazio guztia epailearen esku dago eta Ertzaintza ikertzen ari da. Anai-arrebak eta gurasoak bat eginik gaude eta azkeneraino joango gara egia jakin arte. Amak ere barruan zeukan guztia askatu du eta orain aurrera egiteko esaten digu, azkeneraino.



▲ OSPITALEAN

Haur jaioberria hil egin zela esaten zieten gurasoei, eta ezin zutela ikusi, hilobiratzeaz ospitalea arduratu zela.

“Egia jakin dadila”

“Egia jakitea, horixe da eskatzen duguna”, diote Ana Carlotak eta Mertzek. “Lehenik eta behin, aitor dadila ahaideak lapurtu zizkigutela, eta egin daitezela haiek aurkitzeko ahalegin guztiak. Aurkitzen ditugunean, beren borondatea errespetatuko dugu. Orain arte izan duten familiarekin jarraitu nahi badute, gu ez gara oztopo izango. Baina jakin dezatela ez direla abandonatuak izan, lapurtuak baizik, jakin dezatela beti oso maitatuak izan direla”. Horrez gain, kalteordainak eskatuko dituzte. “Ardurak dituenak kalteak ordain ditzala. Ez dugu onartuko delitua bertan behera lagatzea. Gizateria-ren kontrako delitua dira gure iritziz”.

Kezkatuta daude Espainian epaileak kasu guztiak artxibatzen ari direlako, “baina Euskadin, oraingoz, beste dinamika bat dago epaitegietan”, diote itxaropenari eutsi nahian. “Salaketak jarrita daude, ikerketak egiten ari dira, eta epailearen aurrean batzuek, behintzat, deklaratu dugu”, dio Ana Carlotak. “Nik Donostiako epaitegietan deklaratu nuen, hirugarren aretoan. Epaileak esan zidan kasu batzuk bertan behera geldituko zirela, ez zutelako heldulekurik, baina gure kasuan ikerketa eskatzeko nahikoa zantzu zegoela aitortu

zidan”. Hilabete batzuk badira kasua Ertzaintzaren esku dagoela. “Epaiketarako deitu zain gaude”. Mertzek, berriz, badaki ez duela aukera handirik dokumenturen bat aurkitu ezean. “Baina horregatik ez dut etsiko. Gutxienez lapurretak izan zirela onartu arte borrokan jarraituko dut”. Beharrezkoa bada, Estrasburgoko epaitegiraino iristeko borondatea dute: “Dagoeneko sinadurak biltzen ari gara”.

Mertzek askotan irudikatu du ahizparekin elkartuko den eguna: “Askotan pentsatzen dut egunen batean norbaitek etxeko atera deituko duela. Zabaldu eta bestaldean dagoen horri gure antza hartuko diodala. Ahizpa ote den galdetu eta baietz erantzuten dit...”. Ana Carlotak ezin die malkoei eutsi: “Bakarrik nagoenean pentsatzen jartzen naiz eta beti negarrez amaitzen dut” dio, malkotan. “Ni pertsona alaia naiz, aurrera egiten duen horietakoa, baina honek min handia egin digu. Askok esan dezakete zertarako bazterrak nahastu hainbeste urte pasa eta gero. Zergatik pertsona horren bizitza hankaz gora jarri... Guk egia jakitea nahi dugu, besterik ez. Eta kaltea egin ditugunek ordain dezatela. Jakin dadila zer gertatu den”. ■



EUSKADIREN ALDE

Prest gaudelako.
Irrotasuna, esperientzia
eta bizitasuna dugulako.
Egunero ahalegintzen garelako.
Irteteko gai gara.
Konfiantza edukitzeko gai.
Aurrera egiteko gai.

JOSU ERKOREKA

ARANTXA TAPIA



bigarren eskuko liburu eta disko

azoka

Baleike Kultur Elkarteak antolatutako bigarren
eskuko kultur produktuen azoka arrakastatsua
izan da, beste behin. Kultur produktuen
kontsumoa sustatzeaz gain, 2.907 euro bildu
ditugu web gunea berritzeko.

Eskerrik asko!





Meskita

Mehmet Ali Egiptoko sultanaren aginduz eraikitako Alabastroko meskita Kairoko leku ederrenetako bat izango da ziurrenik. Arkitektura ikusgarria izateaz gain, hiriaren ikuspegia izateko talaia ezinhobeia eskaintzen du, Saladinoren zitadelaren goikaldean kokatzen da eta.

Argazkian meskitako patioa eta bertan egon ohi den garbikuntzarako iturria ikusten dira. Lasai arnas hartzeko leku egokia, gure moduko turista gehiegi biltzen ez diren artean behintzat.



GOIKO TABERNA
 Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
 institute
 hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
 tel./faxa 943 865 020
 goldengateinsti@telefonica.net

Gure-Txokoa
 aberna



Upela plaza, 4
 20750 Zumaia
 Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibaigain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399

Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

Idoia
 Moda leunda
 Andregaitan espezializatutik

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
 idoiazumaia@gmail.com

ilarzi

Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
 ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

ITSASKI
 SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotratuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI A



943 862 083

KABI TABERNA

Patxita Etxezarreta, 15
 943 117 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

KANTAURI
 TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840



Marixi Sesma
Klarinete Maratoiaren antolatzailea

KLARINETEEN DANTZA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Nekez pentsatuko zuen Marixi Sesmak bere "asmakizunak" halako arrakasta izango zuenik. Musika Eskolan ia klarinete jolerik ez zegoenean pentsatutako formulak osasuntsu jarraitzen du, helburuak aski beteta. Klarinete Maratoiaren 10. aldia egingo da hilaren 16tik aurrera eta lau egunetan instrumentuetatik ateratako doinuak elkarren artean kiribilduko dira etengabeko dantzan.

ERRETRATUA



Musika Bandaren entsegu lokalean barreiatuta dauden atril eta aulkien artean dabil Marixi, klarinetearen familiako instrumentuak argazkirako kokatzen. Kontu handiarekin manciatzen ditu klarineteak. Musika instrumentu honi lotuta doa bere bizitza. Galdera ezinbestekoa da: “Zer eman dizu klarineteak?”. Pentsatzeko segundo batzuk hartu eta gero erantzuten du “Orain arte dudan gutzia eman dit. Bai profesional mailan, baita pertsonalki ere. Batzuetan haserretzen gara..., baina hori denekin bezala da”.

13 urte zituela hartu zuen instrumentu hau lehen aldiz eskutan, musika ikasten hasi zenean. Klarinetea, ordea, ez zen bere lehen aukera izan. “Nik perkusioa nuen gogoko; danborra jo nahi nuen, baina etxean ez zidaten utzi, hura mutilentzat omen zen-eta”. Bere aita Joxe Ramonek tronpeta jotzen zuenez, hura izan zen bere hurrengo aukera. Baina tronpeta ere ez. “Esan zidaten tronpeta anaiak joko zuela eta klarinetearen eta saxofoiaren artean aukeratu

behar izan nuen. Saxofoia erakutsi zidaten, eta hura ikusita... [ahoa okertu du] klarinetea aukeratu nuen”.

Gazte askok bezala, Antonio Tapiarekin hasi zituen ikasketak. “Tapiak ikaragarritzko lana egin zuen. Txapela kentzeko modukoa”. Musikako ikasleentzako bide naturala Bandan sartzea izaten zen. “Hartarako ikasten zenuen instrumentu bat, Bandan sartzeko. Ondo dago hori”. Bandarekin lehen kontzertua Zaldudon eman zuen, 14 urterekin. “Gogoratzen dudan gauza bakarra da kontzertuaren ondoren futboleko jokatzeko ibili ginel”. Bandaren bilakaeran lekuko eta bultzatzailetako bat izan da. “Lehen erreperatorioko piezak jotzen genituen, pasodobleak eta halakoak. Baina aldatu beharra dago. Bizitza aurrera doa, gizartea aldatu egiten da eta erreperatoriok ere egokitu behar dira. Ezin dugu jarraitu orain dela 400 urteko lan egiteko moduarekin”.

Musikaren pozoia barreneraino sartu zitzaion eta 16 urterekin kontserbatoriorian jarraitu zituen ikasketak. Ertainak

“Jendearentzat musika zerbait polita da, baina ez dakite zenbat ordu sartzen ditugun musika jotzeko”

Donostian egin zituen eta goi mailakoak Gasteizen. Ondoren, Carlos Casadó, A Coruñaiko Goi Maila Kontserbatorioko Katedraduna eta egun ONEko (Orquesta Nacional de España) kidearekin jarraitu zituen ikasketak, eta geroago Suediara jo zuen, Göteborg-eko Unibertsitatera. Han, kontzertuak eskaini zituen ganbera talde eta orkestrekin. Garbi dauka ikasketak ez direla inoiz amaitzen. “Irakasteko beharrezkoa da ikasten jarraitzea. Gainera, beti dago ikastaro bat edo master class bat”.



▼ ESPERIMENTATZEKO AUKERA

Ganbera musikarako idatzitako pieza asko dago, baina, Marixik dioenez, hauetatik gehiena ez da jotzen. Klarinete Maratoiaren baitan egiten diren kontzertuak aprobeztatzen dituzte hain ezagunak ez diren piezak jotzeko, moldaketa berriak probatzeko eta esperimentatzeko.





Zumaiako Musika Eskolan eta Erren-
terriako Kontserbatorioan egiten du lan,
klarinetea erakusten. Baina musika jot-
zetetik bizitzea zaila ikusten du. “Alpeeta-
tik gora agian posible izango da musika
jotzetik bizitzea. Hemen, baina, ez dago
horretarako aukerarik”. Kulturen gehia-
go inbertitu beharko litzatekeela uste
du: “Kultura ez da lehentasunezko zer-
bait. Jendearentzat musika zerbait polita
da, baina ez dakite zenbat ordu sartzen
ditugun musika jotzeko”.

Zenbat ordu sartzen dituzu?

“Ez dakit. Orduak falta zaizkit. Lan-
tzen jarraitu behar da etengabe. Gurea
ere kirola da; muskulu asko erabiltzen
ditugu. Baita burua ere. Egun gutxi ba-
tzuetan jo gabe egoten bazara, ikasita-
koa di-da batean joaten zaizu”.

“Bide berriak egin nahian”, iazko
udan Suediara joan zen, hango orkestra
batean sartzeko proba bat egitera. Ez
zuen postua lortu. “Hemen ez bezala,
han etxekoen alde egiten dute”.

Joateko prest egongo al zinateke?

“Oraintxe bertan. Orkestra batean
sartzea amets bat betetzea izango litzate-
ke”.

Amets hori egunen batean beteko den
esperoan, musika jotzeari ez dio utzi eta
Gu Geu (gaur egun Urval Ensemble)
bezalako taldeekin kolaboratuaz, ganbe-
ra musikan murgiltzen da. “Gutxi eza-
gutzen den musika da ganberakoa. Kon-
positore asko daude eta idatzita gauza
asko dago, baina gehiena ez da jotzen.
Non daude pieza horiek guztiak? Zer-
gatik ez dira programatzen? Orkestrek
edo aretoetako arduradunek ez dute
batere arriskatzen programazioak egi-
terakoan. Ondo funtzionatzen duenera
jotzen dute, baina noizean behin atre-
bentziak ere izan behar dira. Muskarion
lana ere bada entzulea heztea. Beti ber-
dina jotzen gu ere aspertu egiten gara.
Mundua handia da, buelta asko ematen
ditu eta jakin behar da hor kanpoan zer
dagoen”.

Orain hamarkada bat bururatutako
formula batengatik da Marixi gaur prota-
gonista. Zumaiako Udal Musika Bandak
eta herriko Musika Eskolak klarinete jole
gutxi zituenean, ekimen berezi bat jarri
zuen martxan, Bandako beste kideen
laguntzarekin. Orain 9 urte sortutako
Klarinete Maratoiaren 10. aldia egingo

BI HITZETAN

Izena: Marixi Sesma Aizpurua.

Adina: 38 urte.

Lanbidea: irakasle Zumaiako
Musika Eskolan eta Erren-
terriako Kontserbatorioan.

Zaletasuna: mendiko bizikleta.

Klarinete jole bat: jende asko
dago oso ondo jotzen duena,
baina ezagunak ez direnak.
Norbait esatearren, Giora
Fiedman edo Martin Frost.




Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium

ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

- ✓ Eguneko menua.
- ✓ Asteburuetan txotx, sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA

tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatetxea

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



MENDI - ONDO c.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOLA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabelo garabi zerbitzua 636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363 zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurstrigunea, C 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291 noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

da azaroan. Euskal Herriko hainbat herritako klarinete joleak etorriko dira datozen egunotan Zumaia. “60 lagun inguru etorri ohi dira urtero”. Musika eskoletan ikasi edo irakasten dutenei zuzendutako ekimena da Zumaian egiten dena. “Kontserbatorioetan aritzen direnentzat edo beraien bizitza musikara bideratu nahi dutenentzat ikastaro edota kurso asko daude. Musika eskoletan aritzen direnentzat edo haurrentzat, berriaz, ez dago ezer ere. Hor egon daitezke Maratoiak duen arrakastaren arrazoia. Herrietako musika eskolen arteko sare bat ere sortzen da, baita pertsonen arteko harremanak ere”.

Klarinete jole askorentzat hona etortzeko erreklamoia Carlos Casadó izan da, ikastaroen arduraduna eta ONEko kidea. “Mundu honetan crack bat da”, dio Marixik. “Bi urtez nire irakaslea izan zen eta banekien nola ematen zituen klaseak. Maratoiaren ideia sortu zenean, iruditu zitzaidan bera izango zela irakasle egokia. Ideia proposatu nion eta originala iruditu zitzaion. Harrezkero gustura etortzen da urtero”. Haren parte hartzea maratoiarentzat “funtsezkoa” dela gaineratu du. “Musika munduan maila gorenean dago eta hona etortzen denean lurrera jaisten da. Edozein musikariri ematen dizkio klaseak, eta hitz handirik erabili gabe: konturatu gabe bere terrenora eramaten zaitu”.

Urtetik urtera erronka handiagoak hartzen joan dira arduradunak: “Hitzaldiak izan dira, klarinete etxeetako jendea ere etorri da modelo berriak aurkeztera eta pixkanaka pisu gehiago duten kontzertuak ere antolatu ditugu. Horrelako foroak beharrezkoak dira musikariontzat. Futbolarien antzera, musikariok ere minutuak behar izaten ditugu, eta horretarako, adibidez, egokiak dira hemen egiten diren kafe musikalak. Esperimentatzeko ere erabiltzen dugu maratoia: beste tokietan egin ezin ditugun gauzak egiten ditugu hemen”.

Hezkuntza hizpide izango dute 10. aldi honetan egingo den mahai inguru batean. Musikaren hezkuntzaz arituko dira, baina baita hezkuntzaz orokorrean ere. “Hutsunea orokorra da, eta hausnarketa bat egitea beharrezkoa ikusten dugu, zerbait gaizki ari gara eta egiten”.

EGITARUA

Asteazkena, 16

- 10:00etan, mahai ingurua. Alondegian.
- 19:00etan, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioiko ikasleen kontzertua. Komentuan.

Osteguna, 17

- 10:30ean, Cos-Art Metodoa. Ubillosen.
 - 20:30ean, kafe musikala. Alondegian
- Ostirala, 18
- 20:00etan, Ganbera Musika kontzertua: Franz Schubert & Jean Françaix-en Zortzikoteak -klarinetea, tronpa, fagota, 2 biolin, biola, txeloa eta kontrabaxua. Alondegian.

Larunbata, 19

- Goiz guztian zehar, eskolez gain, Bufet-Grampon, Selmer eta Vandoren etheen instrumentu eta osagarrien erakusketa. Ubillosen.
- 12:00etan, Musidoku lehiaketa.
- 12:30ean, Cos-Art Metodoa.
- 15:00etan, Lutheria.
- 18:00etan, ikasleen eta ZUMBen amaierako kontzertua. Bakarleri gonbidatua Vicente López (Real Filharmonía de Santiago Orkestra). Maria eta Jose Ikastetxean.



“Badira kontserbatorioan ikasle bakarra dute instrumentuak. Hori ezinezkoa da”

Ahoan irribarrea mantentzen badu ere, agerian geratzen da gaiak buruhauste handiak sortzen dizkiola. “Carlos bera ere harritu egiten da etortzen denean. Maratoira jende piloia etortzen da, baina gero inor ez da joaten kontserbatorioetara. Musika eskola eta kontserbatorioaren arteko zubirik ez dago. Badira kontserbatorioan ikasle bakarra duten instrumentuak. Hori ezinezkoa da. Kontserbatoriora joatea prozesu natural baten ondorioa izan behar du. Norbaitek erabakita izaten al du 11 urterekin injineru izan nahi duela? Ez, ezta? Musikarekin berdin izan behar luke. Musika ikasteko ez da Mozart txiki bat izan behar. Gero ez duzula musikarik joko? Beno, baina behintzat hor geratuko zaizu; zure bizitzarako aberasgarria izango da”. Gazteek interesik ez dutela dio, eta horren errua hezkuntzarena dela ondorioztatzen du.

“Musikako ikasleak ez dira emanaldietara joaten obligaziorik ez badute. Taldeetan dabiltzanak ez dira besteen kontzertuetara joaten. Ez zaie interesatzen ikustea hor kanpoan zer dagoen. Ez dut esaten denetara joan behar dutenik, baina ikusi dezatela, behintzat, badagoela beste zerbait. Gaiak berotu egiten nau eta horregatik antolatuko dugu mahai ingurua. Mahaian kolpe bat eman eta galdetu: ‘Zer ari da pasatzen?’”.

Sorreran jarritako lehen helburua beteta –klarinete jole ugari ditu gaur egun Bandak–, ez al dute posible ikusten formula hau beste instrumentu batzuekin aplikatzea? “Nik uste dut formula hau beste instrumentu batzuekin erabili beharko litzatekeela. Baina lan handia egin behar da: irakaslea aurkitu, erreptorioa erabaki, taldeak antolatu... Ordu asko joaten dira horretan. Oihala- ren atzean lan handia dago”. ■



OSKARBI
KIROLAK

Alal Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



La Primavera
pizzeria

Aita Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jattetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide Ibiltoia Tel. 943861392

Tabaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kadilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagarboak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behea -Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazuelitik, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberitzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo, tarima eta pertsianak
- *Armarri enpatratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua,1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



UZKUDUN
taberna-jatetxea

Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitik-Eguneko menua-Asteburuko menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errazioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



Xanti

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaiako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

ALTZARIAK S.L.

Zalla
taberna



- plater konbinatuak
- ogitartekook
- oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIAKO MUGARRIEN IBILBIDEA

Zumaiako lurrak edo terrenoak noraino iristen diren jakin nahian, aspaldian makina bat ibilaldi egina naiz muga-lerro imajinarioaren gainean edo hurbil, batzuetan hanka bat gure herrian, bestea auzokoan.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
IMANOL AZKUE

Ibilaldi horietan, unerik politenetako edo gozagarrienetako bat mugarriak aurkitzea da. Batzuk zaharrak, beste batzuk berriak; batzuk kareharrizkoak, beste batzuk porlanezkoak, edo hareharrizkoak, edo burdinazkoak; batzuk kuboitxurakoak, zuzen-zuzenak, eta beste batzuk irregularrak; batzuk ageri-agerian, bide ondoan, eta beste batzuk ezkutan erreka bazterretan, zelaiaren erdian edo sasi artean.

Ikusi edo aurkitu ditudan mugarri horiek zerrendatuta, guztira 17 irteten zaizkit. Baina neurketetako paper zaharrak begiratuta, askoz ere gehiago izan beharko lukete; adibidez, Zumaia eta Deba arteko muga-lerroan 9 omen daude, eta 5 baino ez ditut aurkitu...

Mugak lotuz mendi ibilbide ederra egin zitekeela ohartuta, proposamen zehatza zabaldu nuen *Ateki?*

blogean (<http://baleike.com/blogak/ateki>), Zumaiaren muga lerroaren gaineko ibilbidea egiteko, ahalik eta hurbilen mugatik, baina eroso eta sasizetan sartu gabe, erreketako uretan busti gabe.

Urriaren 8an jarri genuen hitzordurako eguna. Deialdiak espero baino oihartzun zabalagoa izan zuen eta 19 lagunez osatutako koadrila abiatu ginen mugarrien ibilbidea estreinatzeko ilusioarekin. Euritan blai, baina giro atseginean, ohartu ginen Zumaian bertan bazter eder asko daudela gehienontzat ezezagunak.

Hankak nekatuta baina hurrengo urtean errepikatze-ko gogoarekin amaitu genuen 33 kilometroko ibilbidea. Hurrengoan, gainera, mugarri gehiago izan daitezke, jadanik pare bat gehiago topatu ditugu eta!

Mugarri horietako bakoitza berezia da, eta halaxe jaso nahiko nituzke hemen, banan-banan, bakoitzaren pare bat argazkirekin.

1) Palankamugarri

Izenak berak adierazten du nolakoa den: burdinazko palanka, harraldeko haitzean goitik behera, zutik sartua. Zumaia eta Deba arteko mugarri, iparraldean dagoena da.

2) Pikotekoa

Bidearen bazterrean dago, umil-umil, ia ezkutatuta.

3) Andikarberrikoa

Pikote eta Andikarberri baserrien arteko bidearen azpialdean, bidetik metro batzuk behera eginda.

4) Andikarazarkoa

Elorriagarako bidearen ondo-ondoan, belar artean. Zenbat aldiz pasatu ote gara ondotik, eta hor dagoela konturatu ez...

5) Jadarrekoa

Lurrean botata dago. Ez ote dago indarririk Zumaian zutik jartzeko (eta bide batez auzokoei metro batzuk irabazteko)? Hemen bat egiten dute hiru udalerrik: Zumaia, Deba eta Zestoak.

6) Ezkaraztokoa

San Lorente ermitatik gertu, zelaiaren erdian, Ezkarazto mendiaren magalean. Belarra moztuta baldin badago, erraz ikusten da, baina bestela kostatu egiten da aurkitzea.

7) San Lorentekoa

Emitaren ondo-ondoan, kaxa-antzekoa ere egina dauka are gehiago nabarmentzeko.

8) Santakrutzerrekakoa

Indamendiren azpialdeko errekan, Narbazerrekatik Artzain baserriko bidearen ondoan.

9) Zigotzagakoa

Meagatik Elkanorako errepidearen ondoan, eskuinaldean, pare bat metro behera. Hemen bat egiten dute Aizarnazabalek, Getariak eta Zumaia.

10) Artzaingoa (1)

Baserriaren ondoko txabola baten alboan.

12) Bentatzokoa

Porlaneko pista horren alboan.

13) Guruzelaikoa

Meagatik behera autopista azpitik pasatuta, Azuerrekaren bazterrean, Guruzelai baserriatik gertu.

14) Errekaldekoa

Arteaga eta Karakas baserrien artean doa Arteagaerrek, eta hantxe, sakonunean, dago mugarria.

15) Karakaskoa

Karakastik Arteagarako bidearen ondo-ondoan.

16) Zumentzukoa

Santiagotik Karakas baserrietara doan pistaren ondoan, Zumentzu izeneko parajea.




17) Santiagokoa

Maia izeneko haitzaren alboan, zutikakoaren gainean. Nolanahi ere, mugarri hori ez dator bat gaur egun Foru Aldundiaren mapetan ageri den muga-lerroarekin; izan ere, azken horrek mugarria tunelaren parean jartzen du. Garai batean, mugarria Laia etxe/ baserriaren ondoan zegoen, han hasten baitzen Getariarako bidea; baina gertatu da Santiago hondartza etengabe handitu egin dela, eta badirudi terreno horiek (paperetan, behintzat, bai) Zumaia-erantzat direla. Pixkanaka-pixkanaka, Orroagara iritsiko ote gara?

LEHEN IBILBIDEAREN DATUAK:

- Geldialdiak kenduta, zazpi ordu pasatxo (7h 08') egin genituen oinez.
- Guztira 33,29 km egin genituen.
- Batez besteko abiadura 4,66 km/h izan zen.
- Batez beste 96 metroko altueran ibili ginen. Punturik gorena (278 m) Elkano aldean, eta baxuena (-7 m) harraldean.
- Desnibela gora: 1.420 m
- Desnibela behera: 1.433 m
- Bakoitzak zenbat kaloria erre genituen, gutxi gorabehera: 3.004 kcal.

Ibilbidearen proposamen zehatza irakurtzeko:
<http://baleike.com/blogak/ateki/2011/09/06/mugako-ibilbidea/>



BOZKATU VOTA



AZAROA-ABENDUA

ERAKUSKETAK

Azaroaren 13ra arte BILADI

HADI elkartasan brigada
kulturalaren argazki erakusketa.

Azaroaren 16tik aurrera

DARAHILI Elkartearen erakusketa..

IKASTAROK

Foronda kultur etxean, urriaren 3an
hasita: KZ Gunea, pintura, plastika,
yoga, eskultura, Tai Chi,...

Informazioa eta izen-ematea :

943-861056 – kulturetxea@zumaikoudala.net - Alondegia kultur etxea (irailaren 19tik aurrera).

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 29, asteartea

- Arratsaldeko 19:00etan, Alondegian (ikasteko gelan) Koldo Izagirrerren hitzaldia/emanaldia euskarari buruz.

Abenduak 1, osteguna

- Arratsaldeko 19:00etan, Alondegian (ikasteko gelan) Julene Azpeitia 24. ipuin lehiaketako sarien banaketa eta emanaldia.
- Koldo Ameztorein ipuin kontaketa.

Abenduak 3, larunbata, EUSKARAREN EGUNA

- Eguerdiko 12:00etan, katxaperoak eta kalejira Musika eskolako trikitilariekin.
- Eguerdiko 12:30ean, Itsas kiroldegitik irtenda. Zumaian Saltaka euskararen alde: Gernika parkea, Moilaberriko zubia, Pulpo aurretik Erriberan sartu eta Beheko plazan

bukatu. Helduen kamisetak aurrez salgai turismo bulegoan, 5 eurotan.

- Bukaeran, bertsolariak eta trikitilariak. Ondoren, salda eta txorizoa Torreberrin.
- 13:30ean hasita, kantu-saioa Kofradiatik hasita: Zumaiko Kantuzaleak.
- 14:30ean Beheko plaza jatetxean bazkaria. Sarrerak salgai Turismo Bulegoan, Metro tabernan, Nikolen eta Beheko plaza jatetxean bertan (10 euro).
- Bazkalondoan bertsoak, kantuak eta giro ederra.
- 18:30etik aurrera, poteoa musikarekin.

Abenduak 4, igandea

- Arratsaldeko 17:00etan euskarazko zinema haurrentzat.

LANKIDETZA ASTEA

2011ko abenduaren 12tik 18ra, Alondegian

- Bideo batean proiektu guztien aurkezpena. Bideoa Oxford aretoan emango da, baina horrez gain zabalkunde handiagoa emango zaio: internet, herriko ikastetxeak, gaztegunea, hogarra, herriko tabernak...
- Erakusketa Oxforden: Nava Jeevan. Argazki erakusketa, 2012ko egutegia, materiala... (musika girotzeko). Mahai batean edo, izango da aukera beste taldeetako informazioa jartzeko (esku-orriak...).
- Hitzaldiak Alondegian:

- Abenduaren 14an (19:00etan): banka etikoa (Behar Bidasoaren esku)

Abenduaren 16an (19:00etan):

- Nava Jeevanen esperientzia
- Eskularen tailerra: larunbat arratsaldean, eskulanak (Nava Jeevanen esku)
- Lankidetzaren kartel handiak kalean.
- Esku-orria etxe guztietara.
*Zumaiko Musika Bandak kontzertua eskainiko du lankidetzaren proiektu baten alde, baina eguna zehazteko dago.

AZAROA

Ostirala, 11

19:30ean Forondako ganbaran, GUNEK antolatuta Otoitz-meditazio saioa: Yoga.

Larunbata, 12

17:30ean, batzoki zahararen alboan Erribetik gaztaina erreak emango dira.

Igandea, 13

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: LOGELA MULTIMEDIA taldearen "Anaki"

16tik 20ra

ZUMAIKO X. KLARINETE MARATOIA: Kontzertuak, ikastaroak...

19tik 22ra

XIXILI EGUNA DELA ETA: Musika Patronatuko kideen esku Kontzertu egitaraua.

Ostirala, 18

22:00etan Aita Marin,

antzerkia: DEJABU taldearen "Gure bide galduak"

Larunbata, 19

20:30ean Parrokian Donostiako IBAETA eta herriko BEHEKO PLAZA abesbatzen kontzertua.

Asteazkena, 23

19:00etan, Baleikeri azterketa: Aztikerrek ia 600 zumaiaari Baleikeri buruz egindako inkestaren emaitzak aurkeztuko dira.

Osteguna, 24

19:00etan Algorri Interpretazio zentroan, ZILZ Elkartek antolatuta, "Zumaiko Itsas-motorrak eta makinak".
22:00etan Aita Marin zine forum saioa: Super 8.

Ostirala, 25

19:30ean Forondako ganbaran, GUNEK antolatutako Solasaldia aurtengo gaiarekin jarraituz: Izaskun Andonegi, "Zaintza palatiiboak eta dolua".

ABENDUA

Osteguna, 15

22:00etan Aita Marin zine forum saioa: Nunca me abandones.

Ostirala, 16

22:00etan Aita Marin, antzerkia: La lechuga.

Igandea, 18

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: Gabon kontuak.



Maitane Uranga

Oinetako eta erroa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zumbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740



Zumaia Hotela

Jatetxea Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



ZUMAI

PRACTICAS AUTO-ESKOLA STOP

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAI



Zumaia optika

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057



Izaskun

Erribera kalea, 3
tel./faxa: 943 860 098



PAZIENTZIA

Ez zuen inoiz pazientziarik izan.

Ez zuen pazientziarik zain egoteko, ezta gauzak egiteko ere. Ez zekien denboraz gozatzan, edo besterik gabe paisaia eder bati begira egoten. Ezinegonak irensten zuen, eta gauza bat amaitu orduko jartzen zen martxan hurrengo zereginaren bila.

Ezin zuen trenaren zain egon behar baino minutu bat gehiago. Berandatzan zen edonori errieta egingo zion, eta hitz-aspertuez elkarrizketa bat luzatzen ziotenean, berehala moztu edo alde egingo zuen, pazientzia galduta.

Nonbaitera joan behar bazuen ere alde aurretik urduritzen zen, garaiz ez iristean beldurrez. Jarraian, denboraz soberan iristen zenez pazientzia galtzen zuen itxarotea egokitzen zitzaiolako.

Ez zuen inoiz pazientziarik izan.

Horregatik, medikuak minbizia zuela esan zionean bere buruaz beste egitea erabaki zuen.

Ez zuen pazientziarik heriotzaren zain egoteko.



99€

Orbegozo H40
GAS BEROGAILUA



AEG GARBIGAILUA L72750
• 7 kg
• 1.200 bira/min

399€



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

Endañeta: aurrena arreta, gero salmenta.



BALAY KONBINATUA
3KFP7865
• No Frost
• Inoxidablea
• 200 x 60

599€



LG LED-a
32 LV2500
• 32"

375€

ERROTA



OPIL
OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

- | | |
|--------------------|-------------------|
| Santixo auzoa | TEL: 943 86 00 00 |
| Erribera, 2 | TEL: 943 14 30 01 |
| Juan Belmonte, 5 | TEL: 943 86 03 00 |
| Basadi, 4 | TEL: 943 14 32 21 |
| P. Etxezarreta, 42 | TEL: 943 86 25 28 |
| Alai, 8 | TEL: 943 86 25 60 |

BIDAIA BAT IRABAZI NAHI DUZU?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

Zumaia txartela baduzu:
Azaroan zumaiaelkartea@gmail.com helbidera idatzi gehien gustatu
zaizun eskaintza zein den esanez. Bi lagunentzako bidaiaren zozketan
parte hartuko duzu.



%5eko DESKONTUA EZUSTEAN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

Deskontua aleatoriki aplikatuko da.

Deskontua erosketan guztietan aplikatuko da zordundutako eta atzeratutako
ordainketetan izan ezik.

Egindako erosketan/kontsumizioan aplikatuko da deskontua.

AZAROA Bezeroaren hilabetea

Eta gainera Zumaian erosteagatik: Poltsa berrerrabilgarriak,
opari txartelak, bidaiak eta opari gehiago... Informa zaitez gure web
gune berrian: www.zumartian.com eta